

ETNOLOGIA ETA DIALEKTOLOGIA

Sarrera.

-Kaixo aitatxo.

-Kaixo.

-Beno ba, ongi iruditzen bazaizu galderekin hasiko naiz:

Non bizi zinen haurra zinenean?

-Bueno, gu bizi giñen jayoteko baserrien, Itxolazaiñe izena du. Erritik bi kilometro bidean dago. An bizi giñen aite ta ama ta sei anai arrebak, ni nitzen laugarna. Aurreneko iru arreba ta gero beste iruek iru anaiek.

-Zertan lan egiten zuen zure aitak?

-Gure aite zurgiñe zen, aitzen zen bere anayekin, errien, bi kilometro bidean, ta taller koxkor bat zuten ta an aitzen ziren. Batzutan zerran, besteatzutan karroak egiten, ta olaxe, gero teiletuk arreglatzen ere ibiltzen ziren, geroo... aitzen zen itxean ere, beiek eta bagiñuzen ta, alorra ere biltzen giñen maize ta... patata ta... erai... eraiten giñun ta... eraitzen ta ibiltzen zen, gero yorran ere bai. Biño geyenean aitzen zen zurgingoan.

-Eta zure amak zertan lan egiten zuen?

-Nere ama antxe ibiltzen zen, sei ume bazituen bazuen lana naikoa, gero... baserriko lanetan ere aitzen zen, nola zen nola zen ain gogorra gure ama, oso langille zen ta... denetan lotzen zen, etzion beldurrik maten lana egitea.

-Nolakoa zen lehengo egoera? Azaldu... nola bizi zineten, eta?

-Egoera oso zaille zen, diru gutxi ebazten zen, ta...Oso gogorra zen.Al giñen guzietan kanpora lanera atras ta or ibiltzen giñen. Oso zaille zen.

-Eskolara joaten al zineten?

-Bai, al giñuela yoaten giñen, erdietan uts iten giñun biño, denbora txarrakin ta yoaten giñen. Beti laixterka, bidean errira ayegatzeerako beti loiex tapatuik ayegatzen giñen, beti berandu, ta olaxe, eskolan..., oso gutxi in giñuen gu.

-Eta... herriko jende asko joaten al zen eskolara... herriko ume asko?

-Bai, bai, errikoak asko yoaten ziren, ume azk... asko juntetzen giñen. Nolaa juntetzen giñen mail guzietakoak, igual juntetzen giñen ogeitamar edoo... inguru ortan.

-Eta bertan ongi pasatzen al zenuten?

-Lebixien bai, maixue oso trankille giñun, beti lo oten zen, ta gu... beti yostaketan ibiltzen giñen, txerri iltzen ta... iltzen giñun bezala ta... an biltzen giñen atze artan, o... bera lo zegoen bitertean, esnatzen zelaik berriz, kriston egurre ematen zigun yostaketan arpatuta, biño ba, gustora ibiltzen giñen.

-Zenbat urtekin joan zinen ikazkin bezala lanera?

-Oso gazteik, ameka urte nittuen, diru bear aundi zegon ta nire osabak oyan bat artu zuen . iketza eiteko ta broman esan ziren:"Goazen iketza eitera!" Ta ni konten, eskola utzi ta iketza eitera, gustora, ustes ore... eskola biño ohea zen biño, eskola biño gogorrakoa zen ore ta antxe pasa giñen sei illabete, kieto! Etxera torri gabe. Ta torri giñelaik beltx-beltxak afrikako motiko oiek bezela torri giñen, oso guapo torri giñen. Biño gogorra zen ore, gogorra.

-Eta non zengoen baso hori?

-Ori zegon, balleko goiko puntan zegon Irague du izena erreka ta... bi aldetara zegon oyana, Belate azpien an,e... pasa giñun sei illabete.

-Eta sei hilabete horietan... zer zen uda edo negua?

-Aprillen o ola... yoan giñen ta... udazkenean torri. Eztakit Setiembre Otubre edo ola torri giñen. Inguru ortan.

-Eta zergatik joan zineten, ba?

-Ba diru pixkuat ebazteatik, itxian nola zegon bear aundie, ta orregatik yoan giñen. Ebazi in giñun pixkuat.

-Zer egiten zenuten egun osoan zehar?

-Argixten yekitzen giñen, osaba yekitzen zen aurreneko ta... gu atzetik perezas, biño yekitzen giñen ta... pixkuat desayunetu, txokolatea balenbazeon, ogi pixkuatekin, txokolate pixkuat yoan ta... olaxe atratzen

giñen. Egurre lenbixko egurre bildu, ta gero txondorra in, gero betaberrittu, zuloa iten tzaion ba ta, or egur berrie sartu ta berriz tapatu, ta antxe aitzen giñen, bazuen peligro aundie zuen biño, suerte izandu giñun, ez giñen deskuidetu.

-Eta gero zer egiten zenuten ikatzarekin?

-Gero eosten zelaik dena ondo, itten giñan, pixkenaka-pixkenaka lurgañeko lurre kendu ta su artu gabe berriz asten bazen su artzen berriz tapatu itten giñun, ta aizia kendu su itzeltzeko, gero zakuetan bete, ta ebiltzen zen... gizon bat ebeltzen zen idiekin lera batekin gu betetzen giñun zakuek arrek bajatzen zittuen... kamion bidera, gero kamiona kargatu, da Iruñera ... Iruñera kartzen zun saltzeko, ta an saltzen zuten.

-Eta asko saltzen zuten?

-Ba, bai saldu itten zen orduan iketza aunitz saltzen zen, aixe gañera, ona itten bagiñun ba, bago... bago iketza oso ona izaten zen.

-Non egoten zineten lanik egin behar ez zenutenean?

-Lanik gabe ez giñen sekulan gelditzen, asi ta akabatu artio beti lana izeten zen, biño... denbora txarra edo... itten bazun, txabol bat bagiñun ta... an egoten giñan, jan ta edan ta... cama... camañe ere bagiñun ta... camañen lo, antxe goten giñan.

-Gaizki pasatzen al zenuten?

-Bueno, osabakin ta bagiñuen, da gero beste le... lengusu bet ere, ez

giñen ain gaizki pasatzen, lan pixka bat in bearra, beño bueno bestela ongi giñen, familikoak bagiñen denak. Ongi goten giñen.

-Eta familiako besteak gogoan hartzen al zenituzten?

-Baai, goizetan ta... aite ta ama falta botzen giñun, gero... itxeko kafesnea ta falta bagiñuen, botzen giñun bai, falta itxeko besteak. Biño bueno, an ez tzegon buelta eman bearrik, ore pasa in bear zen ta... pasa giñun.

-Eta emaztegairik ba al zenuen?

-Ez, oaindik ez, ezta gogoik ere! Ezta... pentsamentuik ere ez giñun olakoik guk oañik! Aurreneko diru pixko bat in ta... martxa pixkoat patu ta gero pentsatzen giñen andregai iñen giñuela. Oañik ez giñun pentsamentuik batrez!

-Ikazkin zinenean euskeraz hitz egiten zenuen?

-Bai osabakin... beti euskeras aitzen giñen, emengo euskera, klaro. Itten giñun, eitten.

-Gazteago izango bazina berriro ikazkin izango zinateke?

-Bueno, ori ztago errateik, orain gañera bizia asko kanbietu da ta, iketz eitera... zalle kustaut oraingo nere adiñekoak yoatea beintzat, oso ondo oittuik daude ta... e luke aguantatiko, oraingo gazteak e lukete aguantatiko, ordun... orduko trotia.

-Eta bukatzeko, betidanik dakizu euskera?

-Bueno ni... iru urte nittuelaik, erdaras ez nakien. Biño iru urtetan, eman zireten nere... tia batzun itxera, erritik kanpo, da an..., Larrentzar zuen izena, ta an ez zen euskaras itten, ta an berriz, euskara guzie galdu in nun, raso. Biño gero bedratzi urtetan berriz, baserrire bueltatu bainitzen, berriz asi nitzen euskeras, ta ya geroztik beti euskeraz in dut nik.

-Beno ba, zer moduz joan zaizu?

-Bueno, de inprobixto arpatu didezta ta... lenbixien pixket apuretuta, beño bueno, gero pixkanaka-pixkenaka goratu zaizkide gauzek eta... ni uste... aski on... batean eon garela, ez?

-Bai, bai. Bueno ba aita, eskerrik asko, eh!

-Bueno ba, ala, nauzun arte, benga, segi ondo, ta asko ikasi, eh!